

» TELEGRAMA

Buenawistako soinuen zale? Kartel klasiko bezain eraginkorra ostiralean, hilak 15, Donostiako Dokan: **NCC** eta **Señor No** taldeak batera ariko dira 20:00etatik aurrera **STOP Petti** beratarra, **Piztiak** ondarroarrak. Kafe Antzokia, durangarra. Zerk huts egin dezake? Plateruenan gozatzeko moduko kontzertua abenduaren 16an **STOP Ttan Ttakun irratia**ren festa ospatuko dute urtero bezala Gazteszenan: **Lagartija Nick**, **The Limboos**, **UK Bill** eta **Superdozer** taldeak ariko dira **STOP**

» MUSIKA

Deabruekin dantzan



VII KUDAI

Autoekoizpena, 2015



Joxi Ubeda

Kudai taldeak bere ibilbidean urrats bat aurrera egin du *VII* lan berriaren bidez. Taldeak metal industrialari bere ukitua ipini dio, bere nortasuna. Taldekideek indar handiz jotzen dute, giro ilunak eraikitzen dituzte, melodiak eta leloak arretaz lantzen dituzte, eta doinu zuzenak grabatu dituzte, zehatzak, gordinak eta bortitzak. Mammon, Leviathan eta Beelzebub deabruekin dantza egiteko doinuak.



Kudai metal taldea 2002an sortu zen, Ekaitz eta Bortx –Hira taldean aritzen ziren– elkarrekin jotzen hasi eta lehenengo ideiak sortu zituztenean. Handik gutxira David –Bletz taldeko kide ohia– haiekin jotzen hasi zen, eta beranduago Tito, eta lauren artean osatu zuen Kudai taldea. Lehenengo abestiak sortzearekin batera, jendaurreko emanaldiak egiten hasi ziren. 2004an *Hutsa* lehen diskoa plazaratu zuten Oihuka zigituarekin, eta lan horrek harrera ona izan zuen hedabideetan. *Ni Naiz* kantuekin osatu zuten bideoklipa Euskadi Gaztea irratia ren sarietarako izendatu zuten.

Arima Eroslea bigarren diskoa beren kabuz ekoitzi zuten 2006an. 2008an Ekaitzek taldea utzi zuen eta Urtzi –Hira taldeko kide ohia– hasi zen Kudai taldean jotzen. 2009an *Shat Mat* hirugarren diskoa kaleratu zuten, Titok arazo fisikoengatik taldea utzi eta Urko hasi zen bateria jotzen.

2013an *Harezko Dorreak* diskoa argitaratu zuten. Ondoren, Urkok taldea utzi zuen, eta Unai hasi zen bere ordez jotzen. Beraz, Kudai taldeko kideak Bortx (gitarra eta programazioak), David (ahotsa), Urtzi (baxua) eta Unai (bateria) dira. Laukotea finkatuta dago, eta *VII* diskoa plazaratu ondoren, lan hori han eta hemen jendaurreko emanaldietan aurkezteko gogoz daude. Beren saioak ikusteko eta entzuteko modukoak izango dira. ■